

**BATZORDE NAGUSIAK ORDAINKETA POLITIKAREN INGURUAN EGINDAKO  
BOZKETAREN EMAITZA; QUORUMA, BOTO BALIAGARRIEN KOPURU OSOA,  
ALDEKO ETA KONTRAKO BOTO KOPURUA ETA ABSTENTZIO KOPURUA  
ADIERAZIZ.**

Ekainaren 26ko 10/2014 Legearen 33. artikuluan ezarritakoaren arabera, kreditu erakundeen antolamendu, gainbegiratze eta kaudimenari buruzkoa, Administrazio Kontseiluko kideen ordainketa politika Akziodunen Batzorde Nagusiak onartu beharko du, merkataritza legean sozietate kotizatueterako ezartzen diren baldintzen arabera.

Aipatutako betebeharra kontuan hartuz, Bankuko Administrazio Kontseiluak, 2019ko maiatzaren 30eko bileran, Ordainketa Batzordearen aldeko txostenarekin, aho batez erabaki zuen Kutxabankeko Administrazio Kontseiluko kideen Ordainketa Politika onartzea, eta politika horren edukia Sozietateko Akziodunen Batzorde Nagusiak onartzeko uztea.

Horrela izanik, Kutxabankeko Akziodunen Batzorde Nagusiak, 2019ko abenduaren 19an, akziodun guztiak bertan egonda, aho batez erabaki zuen Administrazio Kontseiluko kideen ordainketa politikaren edukia onartzea.